

**PROCESO DE PARTICIPACIÓN PARA LA  
ELABORACIÓN DEL PLAN DE LA DIRECCIÓN  
GENERAL DE CULTURA-INSTITUCIÓN  
PRÍNCIPE DE VIANA.**

**VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO KULTURA  
ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOA  
BURUTZEKO PARTE HARTZE PROZESUA**

**REUNIÓN TERRITORIALES  
ÁREA DE TAFALLA**

**LURRALDEKAKO BILERAK  
TAFALLALDEA**

*TAFALLA, 20 de septiembre de 2016*

*TAFALLAN, 2016ko iraileko 20an*

## **AURKIBIDEA**

<b>1.-SARRERA.....</b>	<b>1</b>
<b>2.-HELBURUAK ETA METODOLOGIA OROKORRA.....</b>	<b>2</b>
<b>3.-PARTE-HARTZAILEAK .....</b>	<b>3</b>
<b>4.-BILERAREN GARAPENA .....</b>	<b>4</b>
<b>5.-LABURBILKETA ETA AGURRA .....</b>	<b>10</b>

## 1.-SARRERA

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzeak Hiritar Parte-hartze prozesua garatzen ari da Zuzendaritzaren Egitasmoa burutzeko. Prozesu hau Maiatza eta Ekaina bitartean antolatu ziren gaikako bilera sektorialekin martxan jarri izan zen, hauek Nafarroako panorama kulturaren sektore ezberdinen informazioa eskaintzea eta iritzi ezberdinak jasotzea helburutzat zutelarik.

Behin bilera sektorialekin amaituta, **lurraldekako** parte-hartze bilerak antolatu egin ziren, Nafarroako zonalde ezberdinetan burutu izan zirelarik eta helburutzat Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa Nafarroako lurraldean zehar ezagutaraztea eta iritzi plural eta ezberdinoak jasotzea zituztelarik.

Dokumentu-akta honek Tafallako Tafalla Kulturgunean 2016ko irailaren 20an garatu zen bileraren inguruko informazioa biltzen du.

Bilera honetan parte hartzeko deialdia irekia izan zen, deialdia batez ere zonaldeko kultura agente ezberdinei zuzendu izan zelarik (koordinatzaileak, ordezkari politikoak, elkarten ordezkariak, enpresak, etab.).

## 2.-HELBURUAK ETA METODOLOGIA OROKORRA

Tafallako lurraldeko bilera 2016ko irailaren 20an garatu zen Tafalla Kulturgunean 17:00 eta 19:00 orduen bitartean.

Bilerara erakunde instituzional, elkarte eta enpresariak ziren 22 pertsona bertaratu ziren, guztiek kultura arloarekin zerikusia zutena.

Tailerraren **helburuak** ondorengoak ziren:

1. Parte-hartze Prozesua aurkeztea lurraldekako fasean.
2. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa aurkeztea.
3. Iritziak, ekarpenak, eta. jasotzea, bai zonaldeko kultura beharrei dagokienez, bai Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoarenganako proposamenei dagokienez.

Lurraldeko bilerak ondorengo ordena jarraitu izan zuen:

1. Tafallako alkatearen **agurra eta ongietorria.**
2. **Parte-hartze prozesuaren azalpena** oro har eta **zehazki parte-hartze bilerarena** (arauak, bileraren antolaketa, etab.)
3. Nafarroako Gobernuo Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eskutik **Zuzendaritzaren Egitasmoaren aurkezpena.**
4. Talde dinamikaren **parte-hartze lana.**
5. Talde lanaren **bateratzea.**
6. Amaiera eta agurra.

### 3.-PARTE-HARTZAILEAK

PARTE-HARTZAILEAK	
Izen deiturak	Erakundea
ALEXANDRE DURÓ CAZORLA	AYUNTAMIENTO DE ORISOAIN
MAITE GARBAYO VALENCIA	AYUNTAMIENTO DE OLITE / ERRIBERRI
CLAUDIA MOLINA	
FERNANDO UNZUÉ OLCOZ	AYUNTAMIENTO DE GARINOAIN
IÑAKI LERGA ESPRONCEDA	AYUNTAMIENTO DE TAFALLA
JESÚS ECHARRI LÓPEZ	GRUPO DE DANZAS TXIBIRI DANTZA TALDEA
JAVIER MONREAL	AYUNTAMIENTO DE ENERIZ
BELÉN ÁLVAREZ	
JOSI ÁLVAREZ	
MARÍA JURIO VIDARTE	AYUNTAMIENTO DE ARTAJONA
VALENTÍN GARCÍA OLCOZ	AYUNTAMIENTO DE FALCES
ARTURO GOLDAZARENA	AYUNTAMIENTO DE TAFALLA
ASUNCIÓN PUCH RUBIO	AYUNTAMIENTO DE LAPOBLACIÓN
AMAIUR ESPARZA	ALTAFFAYLLA KULTUR FUNDAZIOA
MARÍA BELÉN CHOCARRO	MUSEO YACIMIENTO ARQUEOLÓGICO LAS ERETAS
MARÍA AMATRIAIN ALONSO	CONSORCIO DESARROLLO ZONA MEDIA
IGNACIO IRIARTE MARCO	AYUNTAMIENTO DE LERGA
CAROLINA GONZÁLEZ PRIETO	ESCUELA DE JOTAS HERMANAS FLAMARIQUE
CARLOS UKAR ARANA	AYUNTAMIENTO DE CAPARROSO
SUSANA ARDANAZ NAPAL	AYUNTAMIENTO DE CAPARROSO
ENRIQUE SALVADOR PASCUAL	AYUNTAMIENTO DE CAPARROSO

ANTOLAKUNTZA	
Izen deiturak	Erakundea
JAVIER ESPINOSA OCHOA	EIN
J. ABEL CASADO MARTINEZ	EIN
NURIA ÁLVAREZ	DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA DE GOBIERNO DE NAVARRA

## **4.-BILERAREN GARAPENA**

Arturo Goldazarenak, Tafallako Alkateak bertaratutakoak agurtzen ditu eta Nuria Alvarez, Kultura Zuzendaritza Nagusiko Teknikaria eta Javier Espinosa Ochoa aurkezten ditu, Parte-Hartze Prozesuaren koordinatzailea eta EIN Arkitektura eta Ingenialaritza SLUren, prozesuaren laguntza teknikoa, ordezkaria dena.

Honen ostean Javier Espinosa Ochoak, EIN Arkitektura eta Ingenialaritza SLUren ordezkaria denak bertaratutakoak agurtzen ditu eta prozesuaren aurkezpen orokorra egiten du eta baita parte-hartze dinamikarena ere.

Gero Nuria Alvarezek Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoaren (2016-2019) laburketa azalpena egiten du. Zehazki, goiburuaren azalpena eskaintzen du ("Nafarroa, sormen eta sorkuntzarako lurraldea"), Hiritargoaren komunean duen oinarrizko eskubideen artean kokatuz eta Egitasmoa hasiera puntu gisa hartzen duelarik, kultura ondasun erkidetzat hartuta. Honen harira, egitasmoa burutzeko ezarritako ikuspuntu berria egun dauden kudeaketa ereduak kontuan hartuta azaltzen dira, azkenik Kultura Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuak aurkezteko – Historia Ondarea eta Baliabideak, Artxiboak, Liburutegiak, Museoak, Kultura Ekintza eta hauen gaineko ikuspuntua baita helburuak ere.

Honen ostean parte-hartze dinamika azaltzen da eta bertaratutakoak bi taldetan banatzen dira bileraren parte-hartze atalari hasiera emateko.

Azkenik bi taldetan landu izan diren gaien erakusketa egiten da.

Lurraldekako bileran egindako aipamen nagusienak ondorengo orrialdeetan azaltzen dira.

<b>1. ZURE ABURUZ, ZEINTZUK DIRA ZURE HERRI/ZONALDEKO KULTURA BEHAR NAGUSIENAK?</b>
<b>RECURSOS E INFRAESTRUCTURAS</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Herri txikietan era guztietako baliabideak eskasia larrian daude; hau dela eta, hauen beharrak berebizikoak dira.</li> <li>▪ Erakunde askok ez dituzte hedatze, publizitate eta marketin lanak burutzeko profesionalik eta honek baliabideak garatzeko zailtasun handiak sortzen ditu, halanola Museo txikiak (Eretas Museoa). Hemen ere herri txikiek taldeak kontratatze edota programazioak kudeatzeko dituzten gaitasun eza aipatu beharko zen, oinarritzko laguntza logistikoa behar dutelarik.</li> <li>▪ Nafarroako Gobernu baliabideei dagokionez ez dira berdintasun egoeran tratatzen. Adibidez, Turismoko web orrialdean edota kultura berriei dagokienez, balore handia duten baina hain ezagunak ez diren baliabideak bultzatu beharko ziren.</li> <li>▪ Eskualdeko herri gehienetan ekintza kulturalak garatzeko lokalen falta nabari da oro har. Hala ere, herri ezberdinen arteko azpiegituren desoreka aipatu beharra dago; izan ere, herri batzuek behar dutena baino gehiago dute eta beste batzuek kontrari, behar duten baino gutxiago. Honek argi eta garbi desoreka egoera argia eragiten du.</li> <li>▪ Zehazki, espazioak falta direla azpimarratzen da Eskualdeko eta herrietako taldeek euren ekintza kulturalak Aurrera eraman ditzaten (adib.: Olite), musika taldeek praktikatzeko eta kontzertuak eskaintzeko espazioak falta (adib.: Tafalla), antzerki lehiaketa ezberdinak ospatzeko espazioen falta (adib.: kontzertuak, elkarte kulturalak, etab. Olite), erabilpen ugariak (adib.: Artaxona), sormen eta produkzio artistikorako espazioak (adib.: Tafalla), etab.</li> <li>▪ Herritarren beharretara baliabide jakin batzuk moldatu beharko ziren, adibidez liburutegiak, euren diru laguntza eta gaitasuna handituz (adib.: Olite), eskuragarritasuna, edota ikasketa gune eran erabiltzeko ordutegi zabalpena.</li> <li>▪ Era berean gutxi erabiliko azpiegiturak aipatzen dira, argi eta garbi eskualdeari begira egindakoak (adib.: Tafallako Kulturgunea), bere espazioa Eskualdeko programaziora zabaldu behar zelarik Nafarroako Gobernuaren laguntzaz.</li> <li>▪ Artxibategi municipalak kudeatu eta mantentzeko herri txikietako Udaletxeek laguntza beharrezkoa dute.</li> <li>▪ Arlo publikotik kanpo dauden artxibategiak bultzatu beharko ziren guztiontzako duten balore patrimoniala dela eta.</li> <li>▪ Oro har laguntza ekonomikoak beharrezkoak dira ekintza kulturalak burutzen dituzten talde eta elkarteentzat. Orain arte soilik Udaletxeen laguntza mugatuaz baliatzen baitira.</li> <li>▪ Beharrezkoa da Musika Eskola eta Kontserbatorioen eskaintza deszentralizatzea hauek herri txikien biztanleekiko eskuragarriago egon daitezen.</li> </ul>
<b>HERRIEN ARTEKO KULTURA KOORDINAZIOA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Herri eta zonalde ezberdinen arteko sare-lan elkarlana garatu beharra dago, honen bitartez baliabideak eta ekintzen programazioa hobetu ahal izateko.</li> <li>▪ Eskualdean ez dago koordinazio kulturalik.</li> </ul>

<b>1. ZURE ABURUZ, ZEINTZUK DIRA ZURE HERRI/ZONALDEKO KULTURA BEHAR NAGUSIENAK?</b>
<b>PUBLIKOA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kultur ekintzetara agertzen den publikoa eskasa izaten da oro har.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Herritarren gehiengoak ez du ezagutzen Ondareak duen balioa, ez materialarena ezta immaterialarena ere.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zehazki gazteak erakartzeko beharra dago, baita gizarte-bazterketa sufritzeko arriskuan dauden kolektiboak ere.</li> </ul>
<b>ELKARTE ETA TALDEAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Herrietan garatzen diren elkarte eta kultura taldeak gehiago zaindu behar dira, baliabide kulturalen artean garrantzitsuenetarikoak baitira eta dinamizazio lan garrantzitsua egiten baitute euren baliabideek sortutako mugak alde batera utzita.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Talde eta elkarte batzuentzako aholkularitza beharrezkoa da; izan ere, ez baitituzte diru laguntzak, tramite legalak, etab. kudeatzeko gaitasun teknikorik.</li> </ul>
<b>PROGRAMAZIO ETA EKINTZAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Oro har, herrien kultura ekintzen plangintza eta koordinazioa faltan sumatzen da, bat-batekotasunez eta helburu zehatzik Gabe lan egiten baita.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Diru laguntza gehiago beharrezkoak dira ekintzak programatzeko eta baita jada eraikitako azpiegiturak probesteko ere, adibidez Tafallako Kulturgunea.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Herrietan eta zonaldean antolatzen diren ekintza eta programazioen inguruan ezezagutza izaten da arrunten.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Nafarroako Gobernuako programazio kulturala egiterakoan Udaletxeen parte hartzea beharrezkoa da; bai diseinu eta eratzean, baita ekintzen aukeraketan ere. Gai honen inguruan ez dago elkar komunikaziorik.</li> </ul>
<b>ONDAREA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ondarearen inguruan balorazio falta eta ezezagutza handia dago, bai material, bai immaterialaren inguruan.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ondarearen kudeaketa egokia beharrezkoa da arlo guztietan.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ondarearen balore ekonomikoa eta garapenerako duen balioa goraiatu behar da, baita bere balore intelektual eta kulturalak ere.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Interes patrimoniaia duten ondare higiezin jakin batzuen gaineko arreta dituzten da bere eraberritze eta mantentzeari dagokionez (adib.: Tafallako Kapera Zaharra eta Recoletas-eko Komentua, Caparrosoko Kristoa, etab.)</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ondare sailean egiten diren inbertsioak betiere Eskualdeko ikuspuntutik burutu behar dira.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ondarearen ekintzak ondare dokumentalera heldu behar da, artxibo ezberdinen katalogazio eta digitalizazioa eskatzen duena.</li> </ul>



**1. ZURE ABURUZ, ZEINTZUK DIRA ZURE HERRI/ZONALDEKO KULTURA BEHAR NAGUSIENAK?**

**HEDAPENA ETA FORMAKUNTZA**

- Historia ondarea dela eta, honen balorea ezagutarazteko, hedatzeko eta herritargoari ezagutarazteko beharra dago, bai Eskualdeari bai Tafallari begira.
- Kultura haur hezkuntzatik bultzatu behar da, balore pertsonaltzat jaso dezaten, ondarearen baloreak sustatuz. Batez ere, kultura gazteekiko eskuragarri egin beharra dago formazio hitzaldien bitartez, garapen kurrikular barneko kurtso ofizialak ezarriz, hedatze ekintzak, etab., aipatutako gizarte talde honen kulturarekiko interesa bereziki bultzatu nahian.
- Herrietan eta Eskualdean antolatzen diren kultura ekintzen informazioa hobetu egin beharra dago, baita kultura talde ezberdinena ere eta baita herrietan dauden baliabide eta azpiegiturenak ere. Ez dira soilik Nafarroako Gobernuak goraipatu behar, baizik eta herritarren eta kultur taldeen eskuragarritasuna hobetu behar dela eta efizientzia hobetu.

<b>2.- KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOAK ZER NOLA EKINTZA/PROPOSAMENTAK BURUTU BEHARKO ZITUEN?</b>
<b>BALIABIDE ETA AZPIEGITURAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Herri guztietan helburu ezberdinetarako erabili daitezken espazioak behar dira tokiko kultura talde ezberdinek euren jarduera eta ekitaldiak garatu ditzaten.</li> <li>▪ Helburu zehatzeko espazioak eratzea Tafallan sormen eta produkzio artistikoa garatzeko, entseguak burutzeko eta talde ezberdinek ekitaldiak burutzeko (gazteen musika taldeak, antzerkia, Eskualdeko artistak, etab.)</li> <li>▪ Oliteko liburutegiaren gaitasunaren zabaltzea eta eskuragarritasuna hobetzea.</li> <li>▪ Liburutegien ordutegiak zabaltzea herritarrek eskaerak asetzeko, adibidez, ikasketa orduetarako erabiltzea.</li> <li>▪ Teknologia berriak erabiliz, herri txikienetara Liburutegiak helarazteko programa.</li> <li>▪ Eskualdeko beharrak jasoko zituen Nafarroako Artxibo Orokorreko azpi-xedea sortzea Tafallako Oblatas Komentuan.</li> <li>▪ Eskualde gaineko erakundeei baliabideak eskaintzea (adib.: Garapenerako Kontsortzioa)</li> <li>▪ Herri txikientzat arlo kultura jardunaldi eta ekintzak garatzeko eta programatzeko laguntza logistikorako laguntza sistema eratzea.</li> <li>▪ Ondare material eta immateriala baloratzeko Eskualdeko Egitasmoak eratu eta garatu beharko ziren.</li> <li>▪ Nafarroako eta Eskualdeko azpiegituretan eskaintzen diren kultura ekintzaz profitatzearren Eskualdeko komunikabide eta garraioaren hobekuntza, horrela herri txikietako biztanleriaren eskuragarritasuna hobetuz.</li> <li>▪ Eskualdeko programazioa Tafallako Kulturgunean.</li> </ul>
<b>PROGRAMAZIOA ETA EKINTZAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Tokiko elkarte eta erakundeek parte hartze handiagoa beharko lukete Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen ekintza kulturalak aukeratzekoan, baita programa horien diseinuetan parte hartzea eta koordinazio eta jarraipenean ere.</li> <li>▪ Sarean lan eginez antolatutako ekintzen programazioa era argi eta eraginkorrean sarituak izan beharko ziren.</li> </ul>
<b>ONDAREA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Tafallako Kapera Zaharraren eta Recoletas Komentuaren eraberritze eta mantentzea eta baita Caparrosoko Kristoarena ere.</li> <li>▪ Egun Nafarroako Museoa gordeta dauden ondare arkeologikoen itzulera eta hauek erakusteko Eskualdeko espazio baten eratzea.</li> </ul>

<b>2.- KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOAK ZER NOLA EKINTZA/PROPOSAMENTAK BURUTU BEHARKO ZITUEN?</b>
<b>DIFUSIÓN Y FORMACIÓN</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ondare material eta immateriala baloratzeko Eskualdeko Egitasmoak planifikatu eta sustatu beharko ziren.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Tokiko biztanleriari zuzendutako tokiko Ondarearen gaineko sentsibilizazio ekintza jarraituak.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskualdeko ondare artxibistikoaren zabalpen eta hedatzea.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ondare gaineko formakuntza, batez ere kultura eta turismoarekin zerikusia duten profesionalei zuzendutakoa.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Nafarroako kultura informazioa hedatzeko tresna teknologiko baten garapena, dinamikoa izango zena eta lurralde osoa kontuan izango zuena.</li> </ul>
<b>PUBLIKOA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kudeaketa publikoko sailen arteko garapen egitasmoa.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskola eta ikastetxeetan Nafarroako Kultura Ondarea, bai materiala, bai immateriala sustatzen duten hezkuntza programen beharra, batez ere tokiko ondareari dagokionez.</li> </ul>
<b>KOORDINAZIOA, PARTE-HARTZEA ETA LURRALDEKOTASUNA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zonalde bakoitzeko kultura dela eta gazteen parte hartze foruak sustatzea.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Egitasmoak eskualdeen arteko koordinazio programa ezarri beharko zuen, bertan "Eskualdeen" arteko herri ezberdinak koordinatzeko erabil zitezkeen tresnak eta aholkularitza zerbitzua izango zuena.</li> </ul>

## **5.-LABURBILKETA ETA AGURRA**

Behin lan dinamika amaituta Parte-hartze teknikariak bileran parte-hartu duten pertsonei eskerrak ematen dizkie eta hurrengo parte-hartze tailerretan parte-hartzera gonbidatzen ditu, baita Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiko web orrialdea eta [participacioncultura@navarra.es](mailto:participacioncultura@navarra.es) mailaren bitartez ere.

Parte-hartzaileei ebaluazio galdetegia betetzeko eskatu ostean, dokumentuaren borradorearen osaketaz informatzen zaie hau irakurtzeko inork bertan zuzenketarik egin nahi izango balu.